2022-06-24 OSTIRALA / 823. ZENBAKIA / 2. AROA
SAKANAKO ASTEKARIA GUAIXE.EUS TOKIKOM

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

Altsasuko osasun eskualdearen "egoera larriaren" berri eman dute Parlamentuan / 5

Uharte izeneko lau herri lotzen dituen ibilbidea egin eta haren gida aurkeztu dute / 7

Ion Cerviño irurtzundarra 19 urtez azpiko areto futbol selekzioarekin, Kroazian / 13

Erlojupekoa: Iker Gomez eta Leire Urtasun txapeldunak eta Mikel Unzilla txapeldunordea / 14

Jose Luis Erdozia etxarriarrak Aranazko historia biltzen duen liburua aurkeztu du / 15

Kirrikili martxo

Koldo Artolak solstizioen inguruko ospakizunen inguruan ikertu du / 2-3

ARTXIBOA

Solstizioaren hizkerak

Koldo Artola Kortajarenak Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak. Erituen zabalera eta ospakizunen hari ezberdinak liburu etnolinguistikoa argitaratu du

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

Arakilgo hainbat herritan *Gili-gili martxo sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora, biba San Juan bezpera* oihukatzen zuten San Joan bezperako suak saltatzen zituzten bitartean, Satrustegin, *Kirrikili martxo, sarna fuera, ogi ta ardo Nafarrora, atso guzik ipurdiz gora* esaten omen zuten. Irañetan *Gora San Juan, viva San Juan, zorriek eta partzak fuera*; Arruazun *Urrin San Juan, ipurdien sarna* eta Unanun antzeko leloa zuten: *Urrin San Juan, subiek ez piketzeko*. Dorraon *Purrin San Juan, San Klemente salero, subiek ez pikätzeko, Unanuko tripotak lertzeko* esaten omen zuten.

Burunda aldean, Bakaikun eta Iturmendin udako solstizioen erituen barruan maiatza jasotzen dute oraindik ere, eta *faguä* edo *fagoa* jasotzen dute mendian eta herrian. *Idiyekin* eramaten zuten lehen basora. Urdiainen San Juan bezperan kantaita egiten dute, baita *suba aundiya* egiten dute etxeko *ataiyan* eta *iru salto eiten dia San Juan Bautista doia* oihukatzen zuten bitartean. Altsasun San Juan ermitetako bat da, eta San Pedro *jaya* handia da herrian: *oñez bi kilometro goor* egiten dira *araitzan azpian* jateko. Olaztin San Juan egunean *ur bedikatuba* hartzera joaten ziren eta *ataiyan iria* eta *inxusia* jartzen zuten.

Koldo Artola Kortajarenaren Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak liburuan aurki daitezkeen esaera batzuk baino ez dira. Artola urtetan Nafarroan barrena ibili da adineko euskaldunak elkarrizketatuz eta grabatuz, eta urteetan zehar eskuratu zuen esperientziaz baliaturik, 2014. urtean, Aranzadi elkartearen eskutik, Ziorditik Uztarrozeraino obra plazaratu zuen hiru liburukitan. Lehenengo bi liburuetan inkesten emaitzak jasotzen zituen eta hirugarrena lekukoen "gehigarri" bat zen eta ehundik gorako testu agertzen ziren. Solstizioen inguruko material "dezente" zuela ikusita, dena bildu eta liburua argitaratzea pentsatu zuen: "Oraingo hau solstizioen ingurukoa da; gaiak etnografikoak dira, pixka bat kostunbristak, pixka bat folklorikoak".

Zaletasuna

Koldo Artola Kortajarena Donostiarra da, "baina Iruñeko neska batekin ezkondu nintzen". Emaztearen familia Iruñekoa zenez, askotan bisitatzen zuten Nafarroako hiriburua. "Harremana handia egin nuen Iruñearekin eta Nafarroarekin". Udan zortzi edo hamar egunez Izabara joaten ziren eta denbora horretan "Erronkariarren artean euskaraz bazekienarekin hurbiltzen hasi nintzaien. Ez dakit zaletasuna zen edo kontzientziagatik izan zen". Aurretik Mitxelenak 1952. urtean Uztarrozen eta Izaban inguruan egindako ikerketa lanak irakurrita zituen Artolak, "eta horiek irakurriz zaletu nintzen eta horrela hasi nintzen saltseatzen". Nafarroako Pirinioetan pasatzen zuen egun horietan Belaguara, Zaraitzu aldera eta abarrera joateko baliatzen zuten, "eta Zaraitzu aldean Otsagin ikusi nituen andre zahar batzuk eserita eta hurbildu nintzen eta euskaraz hasi nintzaien. Haiek primeran erantzun zuten, zaletasuna ernatzen hasi zen".

Artola Aranzadi elkarteko kide ere bazen. Aranzadin hamalau sail daude, tartean antropologia, etnografia,botanika... "Ni sartu nintzen etnografian eta orduan Fermin Leizaolak abiatu zuen lan bat, gero Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa izango zena". Euskal Herri guztian zehar hainbat lekutan datu bilketa egin zuten. "Adiskidetasunagatik jakin zutenean ezagutu nituela zenbait andre erantzuteko moduan zeudenak esan zidaten ea egingo ote nien inkesta bat haietako bati". Horrela sortu zitzaion leku gehiagotan gauza bera egiteko zaletasuna. "Oharkabean, batzuetan zaletasunak horrela ernatu egiten dira".

Mintzaraztea

Inkestak magnetofonoarekin grabatzen zituen, "eta egon beharrean nola esaten da hau, nola esaten da bestea edo hitz solteak nola esaten zituzten galdetu beharrean, niretzat askoz garrantzitsuagoa zen hitzak bere testuinguruan egotea eta jendea mintzaraztea". Modu espontaneoan hitz egiten zutenean "aberastasuna ateratzen da, sintaxi aldetik, giroak eta guretzat arraroak diren hitzak eta kontrakzioak, esaldiak, kontsonanteen arteko txokeak, aditzak...". Aditzak biltzen aritu zen ere, lagun bati faborea egiten; Sakana aldean, hain zuzen, aditzak jasotzen aritu zen Artola.

Euskalkiak adineko jendearen ahotsetan jasotzea ez da lan erraza, baina jendea "pazientzia handikoa" zela eta "oso jende majoa" aurkitu zuela azaldu du Artolak: "Haien fibra sentimentala utzi zidaten". Salbuespen pare bat izan zituela aitortu du ere, "danbateko batekin erantzun zutenak", baina leku gehienetan "lasaitasun handiarekin, gogoekin eta gustura" aritu zen.

Solstizioak

Bildutako grabazioekin hainbat artikulu egin izan ditu Artolak, eta Iruñean argitaratzen duten Fontes Linguae Vasconum aldizkarira bidali ditu. "Urteak dira bilatzen ari naizela. Halako batean, nire materialean murgildu nintzen eta ikusi nuen solstizioei buruz material dezente nuela". Jasotako materialetan hainbat gai daudela azaldu du ikerlariak, inauteriak, kantak, dotrina euskaraz ikasten ote zuten, otoitzak euskaraz... "Era askotako kontuak badira, baina ikusi nuen gai honi buruz material dezente nuela bilduta eta pentsatu nuen horrek ematen zuela horrelako liburutxo batean jasoa izateko". Martxan jarri zen eta Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak liburua sortu zuen. Erituen zabalera eta ospakizunen hari ezberdinak liburua atera zen. Aranzadi elkarteak argitaratu du, eta udako eta neguko solstizioen inguruko esaerak, esamoldeak, testuak eta abar biltzen ditu.

"Gaia interesagarria zela pentsatu nuen, aberatsa, eta hainbat leku desberdinetan mintzamolde desberdinetan ematen dena. Gainera, hemen agertzen diren lekukotasun asko ez dago gaur egun jasotzerik". Duela 30 edo 40 urte bildutakoak dira, "eta berriemaileak adin handikoak ziren". Artola konturatu zen zenbait lekutan "harrapatu" zituen euskal zahar horiek "erresidualak" zirela, "oso gutxi gelditzen ziren ibar askotan"; eta momentu horretan ez bazuen biltzen, "urte gutxitara bizilegeagatik desagertuta egongo zirela". Herri horietako euskararen arrastorik ez zela gelditukо.

Sakanan "oso kasu bereziak" daudela azaldu du, "Urdiain, Arbizu, Lakuntza, Etxarri Aranatz, Bakaiku neurri batean eta Ergoiena salbuespenak dira; hau da, muga-mugan egonda, hor mantendu dute euskara". Bertan egondako apaizen "lan handia" aipatu du Artolak: "Juan Goikoetxea Arbizun, Larraun ibarrean dagoen Lezaetako herrikoa zena; Bakaikuko Ondarra apai-



Koldo Artola Kortajarena . UTZITAKOA

za kaputxinoa; nola ez, Jose Mari Satrustegi, eta hainbat urtez San Migel Aralarko kapilaua izandako Uharte Arakilgo seme Inozenzio Aierbe. Baita Altsasuko kaputxinoak ere hor egon dira". Kontzientziari eusteko oso lagungarriak izan direla esan du. "Baina salbuespenak dira. Muturreko lerro horretan, nahiz eta orain euskararen muga hori zorionez handitu den, lehen euskararen muga aipatutako herrietan zegoen". Beraz, Sakanako herriek "oso adibide ona" ematen dutela, eta omenaldia behar dutela adierazi du.

Kontaketak

Egilearen asmoa ez da izan ondorioak ateratzea. Liburuaren sarreran aipatzen duen bezala, beste batzuek egin dute lan hori; hau da, solstizioen ohiturak eta erituak zertan diren. Felix Zubiaga, Resurreccion Maria Azkue, Jose Gonzalo Zulaika Aita Donostia, Jose Migel Barandiaran, Jose Maria Satrustegi, Jose Maria Jimeno Jurio, Juan Garmendia Larrañaga, beste batzuen artean, dagoeneko hitz egin dute udako aroaren hasieran ematen dioten San Juan jaiaren ospakizun erlijioso zein magikoez eta neguko aroari hasiera ematen dion Eguberriko jaiaren ospakizunei buruz. "Horiek dena esanda utzi dute, nik zer esan behar dut? Gainera, ni ez naiz unibertsitatetik pasa. Nik egin dudana izan da horri buruz galdetu eta jendeak erantzun duena idatzi. Jendea mintzatzera animatu". Jendea euskaraz hitz egitera bultzatzen zuen: "Jendeari gaiak eman edota egoera baten aurrean kokatzen nuen; 'kontaidazu nola egiten zenuen hau, edo artzaina ibili bazen ea zer egiten zuen...".

"Zehatz-mehatz kontatzeko denbora guztian tiraka ibili naiz. Nik nahi nuena jendea mintzatzea zen. Gero ahal zena esaten zuten. Hori lortzeko jendea hitz egitera bultzatu behar duzu". Batzuetan euskaldun "erresidualekin" egotea tokatu zaiola azaldu du, hau da, euskaraz "justu-justu" aritzen zena, "eta beharbada irakurle batentzat nekeza izan daiteke 'gero, gero, gero' irakurtzea". Egoeraren araberakoa izan dela azaldu du, beste batzuetan hitz egiten oso ondo "mantentzen" ziren eta hitz egiteko joera handia zuten, "eta horiek ez zuten premiarik laguntzaile izateko".

Jendearekin solstizioen zein beste edozein gaiaren inguruan hitz egiteko aurretik "pittin" bat jakin behar zuen Artolak. Aranzadi elkartekoa izanik ere irakurriz joan dela esan du: "Jabetzen joan naiz nondik norakoez. Ez da bat-batean ezer jakin gabe agertu naizela". Bestela, denborarekin eta lanaren bidez ikasten joan dela ere esan du.

Ahotsak

Liburuan agertzen diren testigantza guztiak entzuteko aukera ere dago. 2014an publikatutako hiru liburukien bilduman zortzi orduko CD bat kaleratu zutela azaldu du Artolak, baina oraingoan "gauza tekniko hauek ziztu bizian aldatuz joaten direnez", webgune baten bidez entzun daitezke jasotako lekukoak. Liburuan, 27. orrialdean QR bat dago eta zuzenean audio horietara eramaten du, bestela ahotsak.eus bildutako materiala entzuteko aukera dago ere. "Horrela interesa duenak aldi berean irakurri eta entzun dezake".

Sakanako berriemaileak liburuan

Udako solstizioa

- **Sanjuanak Olaztin (2002)** Josefa Ezker Mikelez, 1908
- **San Juan, Altsasuko ermitetarik bat (2001)** Juan Mazkiaran Iriarte, 1918
- **Urdiaingo sanjuanetako ohiturak (2001)** Juncal Galarza Garmendia, 1935
- **Iturmendin, maiatza deitu arbola 'maiatzeko sanmigeletan' ipini (2001)** Jose Galarza Aseginolaza, 1918
- **Iturmendiko maiatza arbolaren inguruan, berriro (2001)** Fermin Gabirondo Agirre, 1929
- **Maiatza, Bakaikun, San Juan bezperan (2010)** Pio Anso Urriza, 1929
- **Dorraoko sanjuanetako ospakizunak (2000)** Juanita Lizarraga Yaben, 1923
- **Unanuko suan saltoka sugeen hozkak ekiditeko (2000)** Teodora Mozo Lizarraga, 1925; eta bere alaba Yolanda Lizarraga Mozo, 1963
- **Arbazuko sanjuanetan erremadurak ageri (Arruazu, 1984)** Manuel Berjera Sasiain, 1893
- **Irintan ere erremadurak, Arruazun eta Ihabarren bezala (Irañeta, 1988)** Jose Armendariz Estanga, 1901
- **Sanjuanetako sua, jauzia eta leloa (Irañeta, 1986)** Pedro Balda Unanua, 1894
- **Girigiri hasierako leloa Murginten (Murgindueta, 1986)** Pedro Arraras Yeregi, 1906
- **Sua egin eta 'Viva San Juan' besterik ez (Murgindueta, 1987)**Tomas Etxarri Escudero, 1907
- **Ihabarren, San Juan eguneko erituen eragina San Antonekoan (1989)** Mikela Huarte Arraras, 1898
- **Satrustegiko San Juan suarekiko, Josefa Ongairen arabera (1985)** Josefa eta Jesusa Ongai Huarte, 1910 eta 1906
- **Sanjuanetako oroitzapen urrunak (Satrustegi, 1988)** Juan Huarte Albisu, 1916
- **San Juan bezperako leloa (Satrustegi, 1987)** José Miguel Goitia Madoz, 1906
- **Sanjuanetako sua eta leloa (Etxeberri Arakil, 1988)** Celestino Zubillaga Etulain, 1927
- **Zuhatzuko sanjuanetan: sua egin eta Kirrikillo martxo (1986)** Jose Escudero Legarra, 1906; eta Claudia Madoz Huizi, 1904
- **Sanjuanetako ohiturak Urritzolan (1985)** Juan Bautista Otamendi, 1900

Neguko solstizioa

- **Eguberrietako giroa Ziordian (1981)** Patxi Gonzalez de Mendigutxia Villar, 1904
- **Jaiegunetako diru-biltzeak Olaztin (2002)** Josefa Ezker Mikelez
- **Urdiain: Urteberriko erituaren aipamena (2001)** Juncal Galarza Garmendia
- **Urteberriko koplen oroimen urria Etxarrin (1986)** Juan Igoa Beltza, 1907
- **Errege-eguneko zintzarrotsak Altsasun (1987)** Melitona Mazkiaran Albiztur, 1901
- **Dorraon, Eguberrietan, etxez etxe eskean (2000)** Juanita Lizarraga Yaben eta Lorenza Lizarraga Senar, 1924
- **Unanuko Eguberri aldia; leloa, Gesalazkoen oihartzuna? (2000)** Teodora Mozo Lizarraga eta Yolanda Lizarraga Mozo
- **Urteberriko koplen aipamena Arbizun (2000)** Martin Berastegi Berastegi (1920)
- **Urteberriko koplen apurrak (Arruazu, 1984)** Manuel Berjera Sasiain
- **Irañeta: Urberriko kopla ahantzi xamarrak (1988)** Jose Armendariz Estanga
- **Irañeta: Urteberriko koplen haritik orain ere (1986)** Pedro Balda Unanua
- **Ihabar: Gabonetan egur bat erretzeko ohitura eta afari berezia (1989)** Mikaela Huarte Arraras
- **Ihabar: Urteberriko kopla-hondarren beste bertsioa (1986)** Antonio Arraiza Irañeta, 1911
- **Satrustegi: Urteberriko koplez eta Errege-eguneko zintzarrotsez zerbait (1985)** Jesusa eta Josefa Ongai Huarte
- **Urteberriko koplen hondarrak Zuhatzun (1986)** Jorge Escudero Legarra eta Claudia Madoz Huizi
- **Ekai: Urberriko koplen hondarrak (1981)** Pedro Berjera Sasain, 1895
- **Urritzola: Urteberriko koplak I eta II (1980)** Juan Bautista Etxarren Otamendi

ASTEKOA

AINGERU MIKEO

Burujabe, ez burugabe

San Juan bezperako suan salto eginda, erritu zaharrez asmo berriak ardazteko grina. Urteko egunik luzeenak, eguzkiak bere gailurrik altuena hartzen duen egunak. Bitxia, aldi berean, eguna mozten hasten den unean sartu gara udan, gure bizitzaren antolaketan halako garrantzia duen sasoian. Ikasturtea atzean utzita, dagoeneko unibertsitate eta lanbide heziketako matrikula berritzen ariko dira ikasleak, eta oporraldiari begira langileak eta gainontzekoak. Bazter guztietan zabaltzen hasia da aurtengo bero zakar aurreratuak ekarri duen nagirako eta erlaxatzeko gogoaren lurrina.

Guaixen ere, plangintza berria egiteko zutabegileoi mahai gainean jarri digute beste urte betez segitzeko eskaintza. Horixe erabaki konplexua! Zutabeak idaztea, huskeria. Bost minututan, axolagabeki, edozein gai era txepel batean azaltzea. Jendaurrean norberaren pentsaera biluzik erakustea. Zalantzak. Ardura. Botatako iritzien neurria eta egokitasuna. Kontziente burua nabarmentzen duenari batetik ala bestetik daka datorkiola. Jakinik makina bat jende dagoela zer esateko gehiago duena, eta hobeki egin lezakeena. Baina tira, nolanahi ere, prest azaldu naiz, euskaraz egiteko helburuz, nire ekarpen xumea egiten segitzeko. Bestalde, herrietako festak eta jaialdiak ere errenkadan datozen honetan, osasun ikerketek alkoholaren eta drogen kontsumoaren adikzio eta kalte fisiko eta psikoneuronalen datu kezkagarriak azaltzen dituztenean, batez ere, gazteenei gogoraraziko nieke alkoholaren gehiegizkoak eta drogen kontsumoak ez duela pertsona interesgarriago eta zoriontsuago egiten, ergelago bihurtzen baizik, hartutako kopuruaren proportzio berdinean. Gaurko irri erraza, biharko negar garratza. Hortaz, uda bizi eta gozatu eta izan zeu, burujabe, ez burugabe.

BAZTERRETIK

JUANKAR LOPEZ-MUGARTZA

San Juan, gaueko sorginak igelen urmaeleko sugeen aurka

Gaur gauean, izpiritu gaizto guztiak erreko ditu gure suak. Sua suaren kontra, etxea erre baitzaigu egun hauetan su txar batek eraginda. Suteak ezintasuna zabaldu du gurean. Jendea beren etxeetatik atera da beldurrez. Paisaia erreta ikusteak dolua dakar eta samingarria da guztiz.

Beraz, aurten gure sua beste su hori itzaltzera etorriko da. Gure suak elkartasunezko garrak ditu eta gure bihotzetatik sortzen da, eta gure herriaren auzolanaren abarrekin elikatua izanik, ez du mendia erretzen, uzta lorarazten baizik.

San Juan bezpera honetan, sorginak batuko dira akelarrean eta erne egongo dira beren su garbitzailearekin su errausleari aurpegia emateko. Erne egoteko beharra baitago, bai, era askotako suak piztu daitezkeelako edozein unetan gure inguruan, batzuk fisikoak, baina beste batzuk gaiztakeriak eragindakoak.

Esoporen igelen alegian bezala, bai Europa eta Afrika elkartzen diren urruneko lurretan, bai eta Pirinioetako iparraldeko lurretan ere, herriak Zeusi errege bat eskatu dio, eta berak, bere ontasun mugagabean, beren nahia bete du egur-puska bat bidaliz erregetzat, baina suge igel jalea ere bidaltzekotan egon da. Hegoaldeko suge beltzari ahotik sua dario, eta iparraldeko suge bilo horiari, irri faltsua. Batak hamalau igel lortu ditu bere urmaelean, zituenak baino bi gehiago, eta besteak laurogeita bederatzi, zituenak baino hamaika aldiz gehiago.

Suge beltza amorratuta dago, negarrari eutsi ezinik, botere gehiago nahi baitzuen lortu; suge bilo horia, aldiz, pozik dago bere urmaeleko erregina izatetik inoiz baino hurbilago baitago. Eta bere igel ergelak, berak noizbait jango dituenak, pozik ere badaude korroka eginez putzuaren erdian.

Sua zabaldu nahi dute su egileek, sugeek. Ahalko balute, gure lur guztiak erraustu ondoren, igelak banan-banan jaten hasiko lirateke gustura, baina gu lehenengoak jango gintuzkete, lehenago haien su ustela itzaltzen ez badugu. Horregatik gure sorginak behar ditugu, gaur, bezpera honetan, sugetzar guztietatik defenda gaitzaten.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa.
Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

GUTUNA

Matarrasa Basoitxian

GIXANE ANDUEZA GOIKOETXEA, AMAIA AMILIBIA SALGADO, SUSANA AIESTARAN IJURKO, JULE COSTA MENDIA, MANUELA ARREGUI MARTINEZ DE ARMAÑANZAS ETA ZUHAITZ MAITIAK TALDEA

Berriki, 1.000 herritarrek baino gehiagok Altsasuko Basoitxi parajeko matarrasa geldiarazteko eskatu diogu Udalari. Eskaera horri Altsasuko alkate Javier Ollok emandako erantzunaren aurrean, argi utzi nahi dugu zuhaitz mozketa horrek ez duela bete 2012ko Baso Planaren 2. Berrikuspenean ezarritakoa. Izan ere, ezin dugu aipatu gabe utzi matarrasa neguan egin zela, eta horrek izugarrizko kalteak ekarri dizkiola gure basoari; ugaltze-garaian zeuden anfibioei eragin zien; erregaia isuri zen urmaeletan eta lurrean, oihanpeko landaredia galdu da, Flora Mehatxatuaren katalogoko espezieren bat tartean, eta abar.

2020ko ekainaren 15eko 3120194061 espedientean, eta Altsasuko Udalak Basoitxiren ustiapena dela eta egindako eskaeraren erantzunean, Nafarroako Gobernuak a priori proposatzen du matarrasa moztea. Baina aldi berean esaten du herritarrendako garrantzi handiko eremua denez (nahikotasun bereziko eta erabilera publiko handiko eremu sentikorra), "jarduketa neurtua, planifikatua eta, ahal den neurrian, adostua" izan beharko litzatekeela, eta udalari eskatzen dio bere jarrera zein den azaltzeko. Hortik erraz ondorioztatzen da Altsasuko Udalak erantzukizuna izan duela gai honetan. Berriz ere jarduketa prozesu publikoak eskatzen ditugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu eskabidea sinatu duten pertsona guztiei. Izan ere, horri esker udalak bilera batera deitu gintuen maiatzean. Agian ez dugu inoiz jakingo zer galdu dugun, baina garaiz gaude jakiteko zer dugun eta nola babestu eta zaindu gure basoak.

guaixe
SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:
Iune Trecet Obeso
maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eus

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
618 882 675

GK diseinu zerbitzua:
Ainara Santiago Langarika
info@gkomunikazioa.eus
948 564 275 (3 luzapena)
619 821 436
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eus
618 640 056

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

Guaixek ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK

Mank sakana

BAZKIDEAK

mecna

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

Osasun eremuaren "egoera oso larria" da

Altsasuko osasun eremuko udal ordezkariek Nafarroako Parlamentuan salatu zutenez, "babesgabetasun sentsazioa oso handia da. Utzikeria sentipenagatik herritar askoren kexak jasotzen ditugu udaletxean". Mediku falta konpontzeko exijitu zuten

ALTSASU

Nafarroako Parlamentuko Osasun Batzordean lan bilera izan zuten Altsasuko osasun eremuko lehendakari Javier Paz Miñok eta eskualdeko hiru alkateek: Javier Ollo Martinez, Joseba Vizuete Askargorta eta Olatz Irizar Martinez. Burundarrek bi eskaera egin zizkieten parlamentariei. Aurrena, osasun eremuan mediku gehiago izatea. "Egoerak premiazko konponbidea behar du, hutsik dauden plazak berehala bete behar dira, horrela herritarrek merezi duten zerbitzuaren kalitatea berreskuratzeko. Eta osasun eremuko profesionalek atseden hartzeko". Horrekin batera parlamentariei eskatu zieten osasun sistemaren egungo egitura aldatzeko "berehala lanean" jartzeko, "horrela landa eremuan dagoen mediku eskasiaren erantzun globala emateko". Berregituraketa horretan "oso kontuan izan behar dira landa eremuetan lan egiten duten profesionalen iritzia, haiek baitakite sistemaren gabeziak, bertuteak eta premiak zein diren". Nabarmendu zuten osasuna moduko oinarrizko zerbitzuak izatea gazteak gelditzeko eta herriak bizi mantentzeko modua dela.

Burundarrek parlamentariei gaztigatu zietenez, "hainbat urte dira dagoeneko osasun eremuko profesionalen plantillaren %100 ez dagoela beteta. Profesionalen errotazioa arau bihurtu da. Horrek herritarrei eskainitako osasun arretan eragin negatiboa du". Egoeraren ondorioz, profesionalen lan karga handitu dela eta medikuek gaixoak sakon ez ezagutzea dakarrela azpimarratu zuten laurek. Jakinarazi zutenez, osasun eremuko profesionalek udan ezin izanen dute oporrik hartu. Hala jakinarazi diete Osasunbidetik. "Jakin dugunez, oporretako ordezkapenak egiteko lan poltsaren barruan Altsasuko plazak eskaintzen ari dira. Plazak betetzeko zergatik ez diete kontratu horiek zerrendan daudenei eskatzen? Hala iraupen luzeko kontratuak eskainiko lirateke, eta ez aldi baterakoak", adierazi zuten.

Parlamentariek mahai buru ziren burundarren azalpenak entzun zituzten. UTZITAKOA

"PREMIAZKO KONPONBIDEA BEHAR DA, HUTSIK DAUDEN PLAZAK BEREHALA BETE BEHAR DIRA"

Egoera

Osasun eskualdeko profesionalen lana goraipatzearekin batera, jakinarazi zuten haiek egunero osasun eremuari buruzko txostena egiten dutela Osasunbideari bidaltzeko. Azaldu zutenez, Altsasuko eta Ziordiko medikua hilabeterako kontratatuta dago, hilaren 30ean badoa, Olatzagutiako kontsultategiak egunero zabaldu beharrean, astean hirutan zabaltzen du medikuak lanaldi erdia duelako eta Altsasuko osasun etxean gaur egun mediku bakarra dago (lau beharko lukete). Antzeko egoeran "luzeegi" daramatela azpimarratu zuten. Jakinarazi zutenez, egoeraren ondorioz, "gehiago ezin duen mediku bat joan egin zen".

PSNko Nuria Medina Santosek gogorarazi zuenez, Lehen Arretako 35 mediku kontratatzeko Lan Eskaintza Publikoa eginen da. "Baina epe motzean departamentutik zenbait profesionalekin harremanetan jarri da plaza horiek bete ahal izateko, baita MIR bukatu dutenekin eta lanera bueltatu daitezkeen mediku jubilatuekin ere. Udako oporrak betetzeko Nafar Lansaren inskribatutako osasun profesional guztiak aktibo egoteko deia egin du". Medinaren arabera hori garilerako konponbidea litzateke eta agorrilean "litekeena da bi mediku etortzea: Europar Batasunetik kanpoko mediku bat kontratatzeko tramitazioak arindu dira eta Katalunian MIR egin duen eta Altsasuko osasun eremuan lan egiteko prest dagoen profesional bat erakarri nahi da. Horretan ari da departamentua". Burundarrek gaztigatu zutenez, "ez dugu errudunik nahi, izanen da horretarako garaia. Konponbideak behar ditugu, Lehen Arreta gaixo dago Nafarroan, eta gurean oso larri dago".

GAZTERIA ZERBITZUA

Berriemaileen 4. promozioa

Altsasuko Udalaren Gazteria Zerbitzuaren berri gazteen artean zabaltzea, hori da berriemaileen egitekoa. Herriko lau ikastetxeetan eta sare sozialen bitartez aritu dira horretan hainbat gazte. Horregatik saria eta diploma jaso dituzte ikasturte akaberan. Zerbitzutik jakinarazi denez, irailean 2022-2023 ikasturterako berriemaileak aukeratzeko prozesua eginen du.

Grebalariek Parlamentu pareko errepidea moztu zuten atzo. EUSKALERRIA IRRATIA

Aurrerabide faltagatik haur eskoletako hezitzaileak greban

Grebalariei babesa azaltzeko igandean, 19:00etan, Arbizun manifestazioa izanen da

LAKUNTZA / ARBIZU / ALTSASU

Haur eskoletako hezitzaile eta langileek 54. greba eguna dute gaurkoa. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa eta Nafarroako Gobernua asteazkenero biltzekoak ziren, grebalarien ordezkariak gonbidatu gisa hartuta. Baina herenegun ez zen hiru aldeen arteko halako bilerarik egin. Nafarroa 0-3 plataformako Eider Garde Mazkiaranek esan duenez, "gobernuaren proposamenari erantzuna eman eta beste proposamen bat aurkeztu behar genuen, baina plantoia eman digute. Esan digute egoeraren analisia egiten ari direla. Beraien foro horretan gure erantzuna eman ez badiegu, zein analisi egiten ari dira?" Bilera ez egitea "gurekiko utzikeria da. Agerian gelditu da hori ez dela negoziazio mahai bat eta ez dagoela negoziaziorik gatazkari konponbidea emateko. Negoziaketa faltsu bat irudikatu nahi dute".

Mobilizazioak

Nafarroako haur eskolen martxa gaur hasiko da. Nafarroako Gobernuaren egoitzaren paretik abiatuko dute ibilbidea, 18:00etan, eta martxaren akabera Leitzako haur eskolaren parean eginen da igandean, 19:15ean. Bestalde, grebalarien eskaerekin bat egiten du Arbizuko Kattuka haur eskolako guraso talde batek. Adierazi dutenez, "azken hilabete honetan hezitzaile, haur eta familiek bizi dugun egoera larria da. Ikusita Nafarroako Gobernuak duen jarrera, hori salatzeko, Sakanako herritarrei deialdia luzatzen diegu igandean, 19:00etan, Arbizuko plazan antolatu dugun manifestazioan parte hartzera". Manifestazioak *Familiak haur eskolen duintasunaren alde!* leloa izanen du.

AHTrekiko kezkagatik alkateak Madrilera

Arabako eta Nafarroako toki erakundeek egungo trenbide azpiegituren modernizazioa azkartzeko eskatu dute Kongresuan. Trenbide Azpiegiturak Hobetzeko eta Egokitzeko Informazio Azterlana idazteko partida lehenbailehen gauzatzeko eskatu dute

SAKANA

Kongresuko Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Batzordeko PSOE, Podemos, Ciudadanos eta EH Bilduko parlamentariekin bilera izan zuten Arabako eta Nafarroako hainbat udaletako eta bi herrialdeetako trenaren aldeko hainbat ordezkarik asteazkenean. Bileran lau alkate sakandar ere egon ziren: Oihana Olaberria Jaka (Arakil), Aitor Larraza Carrera (Irurtzun), Patxi Xabier Razkin Sagastibeltza (Lakuntza) eta Silvia Marañon Chasco (Etxarri Aranatz). Guztiek eskatu zuten aurtengo Estatuko Aurrekontu Orokorretan jasota dagoen 200.000 euroko partida bizkor gauzatzeko, partida hori trenbide azpiegiturak hobetzeko eta egokitzeko informazio azterketa bat idazteko da.

Udaletako eta plataformetako ordezkariak batzordeko kideekin batera. UTZITAKOA

Larrazak esan zuenez, "abiadura handia ez dela gure herrietarako soluzioa. Azpiegitura horiek eragin handia dute gure hiriguneetan baita gure landa eremuan eta ingurumeneko inpaktu asko dituzte". Eta nabarmendu zuen abiadura handiko proiektuak gero eta erakunde eta entitate gehiagok jartzen dituztela zalantzan: "azkena Europako Batasuna izan da; izan ere, Europako garraio-sarearen araudia berrikustean, abiadura handiko hainbat linearen ordez egungo trenbide-azpiegiturak modernizatzea proposatzen du. Europako Kontuen Epaitegiak ere ziurtatu zuen proiektatutakoa ez dela 2030era arte burutuko, gainkostuak eta atzerapenak arau bihurtu direla eta agindutako abiadurak ez direla lortzen ari", esan zuen Lazarrak.

Alkateak gogorarazi zuen herri mugimenduak alternatiba bat landu duela, eta dagoeneko trenaren aldeko plataformek eta trenbideetako sindikatu nagusiek eskatu ziotela Espainiako Gobernuari trenaren gaur egungo trazadurak egokitzeko eta hobetzeko, eta egungo trenbide proiektuaren plangintza berriz bideratzeko, prestazio handiko trenak zirkulatzeko, horretarako hobetutako eta egokitutako egungo korridoreetan. Azkenik, batzordeko ordezkariei eskatu diete alternatibak aztertu eta konponbide eraginkor baten alde lan egiteko, ukitutako korridorearen hiriguneei zerbitzua emango dien zerbitzu eraginkorra bilatze aldera bai arlo ekonomikoan eta sozialean.

Autobidearen eta Irurtzungo industrialdearen artean daude lurrak. ARTXIBOA

Udala Inasako industrialdea garatzeko gobernuaren zain

Inasa zegoen tokian Arakilgo Udalak 45.000 m2-ko partzela du eta Nasuvinsari dagokio hura garatzea

ARAKIL

Inasa zena Erabide industrialde bihurtuko zela iragarri zela sei urte beteko dira lastailean. Ondoren etorri da lantegi bakarra zena industrialde bihurtzea eta Irurtzungo ekonomia berriro dinamizatzea. Baina industriarako eremu guztia ez dago erabilgarri, haren hegoaldean, autobia aldera dagoen zatia oraindik urbanizatu gabe dago. Industrialde zati hori Arakilgo Udalarena da. Inasaren jardunak lur haiek kutsatu zituen eta Ebroko Ur Konfederazioak hura kentzeko bi urteko epea eman zion Nafarroako Gobernuaren Nasuvinsa enpresa publikoari.

Epe hori pasa da. baina Arakilgo Udalean Nasuvinsak industrialde hori noiz mugitu zain daude. Oihana Olaberria Jaka alkateak azaldu duenez, "eremua ordenatzeko Udalez Gaindiko Sektore Proiektua egin behar zuten. Aurreko legegintzaldian horretarako akordioa sinatu zen Nasuvinsaren eta Udalaren artean. Proiektua garatzeko konpromisoa dago, eta dirua aurreikusi zen. Baina ez da ezer egin". Horregatik, alkateak Nasuvinsakoei bilera eskatu die.

Lau Uharte sei etapatan lotzeko ibilbidea

Uharte Garazi, Uhartehiri, Uharte Iruña eta Uharte Arakil 2002tik daude senidetuta. Lau herriak lotzen dituen mendi ibilbidea egin eta gida argitaratu dute herritarren arteko harremanak sustatzeko. Oinez edo bizikletaz egin daiteke ibilbidea

UHARTE ARAKIL

Nafarroa Behereko eta Garaiko bina Uharte lotzen dituen mendi ibilbidea sortu eta haren berri emateko gida ondu dute lau herriek Udalbiltzaren laguntzaz. Uhartehiri, Uharte Garazi, Uharte eta Uharte Arakil lotzen dituen ibilbide horren bultzatzailea Juan Mari Feliu mendizalea da. Iruñerriko Uharteko Senidetze, Turismo eta Ingurumen zinegotzi zen 2018an eta Udalbiltzari proposatu zion *Hurbiltzen* egitasmoaren bidez lau Uharteak lotuko lukeen ibilbidea sortzea. Senidetzeak 20 urte bete ditu eta orain arte udalen arteko erakunde harremanak sustatu dira gehienbat, baina, esaterako, ez da gizarte edo kultur arloko harremanik izan. Ibilbidearekin senidetzeari "bultzada berria eman eta herrien arteko harremanak betikotzea" nahi dute.

Feliuren laguntzaz Udalbiltzak eta udalek euskal kultura, kirola eta turismoa uztartzen dituen ibilbide sortu dute. Eta hari buruzko argibideak ematen dituen gida ere argitaratu dute. Gidak mapa eta hogeita hamar interesgune biltzen ditu, tartean ermitak monasterioak, gazteluak, trikuharriak eta beste, haietan geldialdiak egitea proposatuz. Ibilbidean barna dagoen historia eta arkitektura ondarearen berri hiru hizkuntzatan (euskara, frantsesa eta gaztelania) ematen du. Gidak lau udalerrietako kultur etxeetan, udaletxeetan eta turismo bulegoetan egonen dira eskuragarri, paperezko euskarrian; baita Udalbiltzako webgunean ere, PDF formatuan.

Lau alkateak aurrean. UDALBILTZA

Ibilbidea

Lau Uharteen ibilbideak GR-65 eta E3 europarraren seinaleztapena jarraitzen du, eta sei txanpa edo etapatan: Uhartehiritik Uharte Garazira (29 km), Uharte Garazitik Orreagara (24 km), Orreagatik Iruñerriko Uhartera (37 km), Iruñerriko Uhartetik Aratzurira (27 km), Aratzuritik Irurtzunera (23 km) eta Irurtzundik Uharte Arakilera (15 km). Azken etapara hori, nahi izanez gero, luzatu egin daiteke eta Artxuetako gailurreraino igo (28 km).

Sunsundeguik oniritzia eman dio bideragarritasun planari

Akziodunen %73k egin zuten haren alde. Plana onartzeko akziodunen bi heren behar ziren

ALTSASU

2022-2027 bideragarritasun planari argi berdea eman zioten Sunsundeguiko akziodunek astelehenean, %73ko babesa izan zuen planak (zuzendaritzak akzioen %51 du eta %49 langileek). Cofidesek, Estatuko funtsak kudeatzen dituen sozietate publiko-pribatuak, Sunsundeguiren finantziazio eskaera onartu du eta enpresa altsasuarrari 8,9 milioi euro emanen dizkio, 4,5 milioi euroko partaidetza-mailegu baten eta 4,4 milioi euroko beste mailegu arrunt baten bidez.

Plan horren bidez, enpresa altsasuarraren helburuak dira "eskaera zorroak handitzea, karrozeria berriak eta etorkizunerako ereduak garatzea (elektrikoak barne), enplegua berreskuratzea, Europako beste merkatu batzuetara hedatzea, produktibitatea hobetzea, digitalizazioa eta lan eta ingurumen segurtasuna indartzea". Hori guztia, "aldi baterako finantza laguntza publikoaren itzulketari aurre egiteko gai izateko eta enpresa kaudimenduna, iraunkorra eta etorkizuna duena izateko".

Tortura ofizialki aitortzeko pausoak ematea eskaera

Igandea Torturaren Biktimen Aldeko Nazioarteko Eguna da, eta Nafarroako Torturatuen Sarea elkarteak manifestazioa deitu du larunbaterako, 18:00etan, Iruñeko autobus geltoki berritik aterako dena. Elkarteak azken sei hamarkadetan motibazio politikoengatik tratu txarrak eta torturak jasan dituzten nafarrendako errekonozimendua, errepara-zioa eta ez errepikatzeko bermea eskatzen du. Kideek azaldu dutenez, "gizarteari eta etorkizuneko belaunaldiei zor diegu gertatutakoa argitzea, hori baita praktika hau desagerrarazteko modurik eraginkorrena. Inori, inoiz, ez dakiola berriro gerta guri gertatu zitzaiguna". Horregatik, "nafar gizartea gonbidatzen dugu Nafarroan torturatuak izan garen pertsonen errekonozimendu eta erreparazioaren alde mobilizatzera, eta Iruñeko kaleak betetzera".

DUELA 25 URTE...

Irurtzunen, Euskara Plazara

Neguan herrian euskarak presentzia izateko ekitaldiak antolatzen ziren, baina ez udan. Kezka horrek bultzatuta Aizpea euskara taldeak Euskara Plazara eguna antolatu zuen garagartzaroaren 29an. Goizean jolasak izan ziren. Paella jana ederra egin ondoren, txiste kontari aritu ziren. Ondoren trikitixa eta akordeoi doinuak izan zituzten. Bazkalostean elkarrekin euskara hizketatzeko aukera izan zuten. Egitaraua kontzertuekin despeditu zen.

"Elkarrekin askatasun bidean indarra jartzera"

ITZIAR, ERKUDEN ETA AITZIBER GURE ESKUKO KIDEAK

Kataluniako Assemblea Nacional Catalana, hango mendi federazioa eta Gure Esku dira Pirinioetako bidea ekimena antolatu dute; 300 gailur pasa argiztatu nahi dituzte

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Mendia. Euskaldunak. Mendizaletasuna. Askorendako elkarrekin erlazionatuta dauden hiru hitz, atzera ere, garilaren 2an, larunbatarekin, bat eginen dutenak.

Gure Eskukoek Beriain argiztatzeko asmoa zenuten, hori gutxi eta Pirinioak orain. Zergatik?

Itziar. COVID-19 iritsi aurretik asmo hori genuen, 2020ko maiatzaren 9rako. Baina pandemia etorri zen, eta hura gutxi zen sakandarrondako eta euskal herritarrendako, eta aurten Pirinioak argiztatuko ditugu.

Zergatik? Edo zertarako?

Erkuden. Pirinioak bi herrialde lotzen gaituen zerbait direlako. Eta gure eskubide bat aldarrikatzeko: erabakitzeko eskubidea. Euskaldunak eta katalanak elkartu eta Pirinio guztia argiztatuko dugu. Eta, elkarrekin, askatasun bide horretan indarra jartzeko.

Pirinioak argiztatzea. Gauez.

Aitziber. Bai. Tontor bakoitzean argi berezi bat piztuko da. Norberak bere frontala eraman beharko du jaisterakoan ongi ikusteko, eta goian ahalik eta gehien ikusteko.

Pirinioak. Mendia. Eskalada ekipamenduarekin joan behar da?

E. Pirinio erdialde horretan dauden tontorretan bai, mendi gorriak deitzen diegu. Mendian ibiltzen den jendea joanen da. Horiek hartuta daude, mendizaleak koadrilaka antolatu dira (Etxarriko bi eta Bakaikuko bat). Baina gu ez goaz horretara. Guretako beste mendixka batzuk daude; Urbasara igotzea bezala da; haurrak, adinekoak joan daitezke, denondako moduko bideak dira, arriskurik gabekoak.

Zein mendi dira horiek?

A. Arakil eta Irurtzungoak Alkurrutzera igoko dira eta gainontzekoak Gorramakilera. Baztanen daude biak, Erratzutik gertu. Gu lehenbizi Gorramendira igo eta handik Gorramakil tontorrera. Han garai batean militarren basea zegoen eta haraino, nahi bada, autoz joan daiteke.

Itziar Flores Mazkiaran, Erkuden Barandiaran Goñi eta Aitziber Etxaiz Soria.

"URBASARA IGOTZEA MODUKO MENDIAK EGOKITU ZAIZKIGU, DENONDAKO MODUKOAK"

E. Dena den asmoa da denak elkarrekin oinez igotzea, 21:00etarako. Eta, ondoren, denok batera jaistea. Baina, norberaren ahalmenaren arabera autoak igotzeko aukera aurreikusten da. Bi tontor horietan egonen gara sakandar gehienak.

Izena eman beharra dago? Edo parte hartzea librea da?

I. Izena eman behar da *www.gureesku.eus* webgunean. Gainera, segurtasun neurri guztiak hartu nahi dira. Izena ematean mendi federazioan izena emanda bazaude gutxiago pagatuko duzu, eta gu bezala, federatu gabe daudenak izena ematean asegurua izanen dugu, igotzean eta jaisterakoan ziur ibiltzeko.

Oraindik izena eman daiteke?

A. Bai. Bai herriari tokatu zaion mendian (zailtasunagatik, tontor berdea), bai 3.000 metroko altuerako tontorretan ere (zailtasunagatik, tontor gorria).

I. Sakandarroi bi mendi egokitu zaizkigu, baina sakandarra izanda, oporretan beste punta batean bazaude eta parte hartu nahi baduzu, beste mendi erraz bat igotzeko izena eman dezakezu. Horretarako trabarik ez dago.

E. Webguneak nahi duzun tontorra aukeratzeko aukera ematen du ere.

Baztan aldera nola joanen zarete?

I. Oraindik ikusi behar da zenbatek ematen duen izena, eta zein asmo duten. Batzuk, agian, gaua han pasatzeko asmoa dute. Saiatuko gara ahalik eta auto gutxien mugitzen. Baina hori, zehazteko dago.

Zuekin batera jende asko joatea nahiko zenukete, ezta?

I. Jakina. Polita izanen da. 19:00ak aldera abiatuko gara tontorrerantz. Han afalduko dugu. Giro ederra sortuko da. Erabakitzeko eskubidearen aldeko aldarri hori gailur batean egiteak badu bere indarra. Zoragarria izanen da, ziur.

FESTAK

IZURDIAGA

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 24 Ostirala
20:00 Txupinazoa.
Kilikiak eta trikitixak.
22:00 Kalderete afaria.
24:00 Dantzaldia Felis DJ-arekin.

EKAINAK 25 Larunbata
12:00 Puzgarriak.
14:00 Bazkari autogestionatua.
16:30 Etxez etxe Txokarro elektroren eskuz.
Mozorro festa: komikietako pertsonaiak.
22:00 Afari autogestionatuta.
24:00 Leytz taldearen kontzertua.
02:00 Dantzaldia DJ Gazte music-arekin.

EKAINAK 26 Igandea
12:00 Puzgarriak.
12:30 Meza eta hamaiketakoa.
13:00 Herri bazkaria.
16:00 Zirko tailerra.
19:30 Zacatecas mariatxiekin kontzertua.
22:00 Gaixoa ni eta hondar afaria.

UHARTE ARAKIL

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 24 Ostirala
GAZTE EGUNA
12:00 Erraldoi eta buruhandiekin kalejira.
13:00 Auzatea.
Uharteko Dantza Taldearen emanaldi sorpresa.
13:30 Uharteko zortzikoa.
14:30 Gazteek antolatutako herri bazkaria.
Ondoren, bingo.
17:00 Gazteek antolatutako jolasak, plazan.
18:00 Gazteek antolatutako kalejira Eztanda txarangarekin.
18:30 Buruhandiak.
20:00 Patata tortilla txapelketa.
Auzatea.
20:00-22:00 Iratzar taldearen eskutik musika plazan.
22:00 Zezensuzkoa.
24:00-04:00 Gazteek antolatutako kontzertuak: Haizkan, Rude Ska eta Aka-Boh taldeak.

EKAINAK 25 Larunbata
10:30 Zamartzera erromeria erraldoi eta buruhandiekin.
Auzatea.
14:00 Parrillada herrikoia eta jubilatuen bazkaria.
17:00 Elektrokela Elektrotxaranga.
19:30 Buruhandiak.
20:00 Auzatea.
20:00-22:00 Muxutruk erromeriaren eskutik musika plazan.
22:00 Zezensuzko.
00:00-04:00 Muxutruk erromeriaren eskutik musika plazan.

EKAINAK 26 Igandea
12:30 Erraldoi eta buruhandiak.
13:00 Auzatea.
16:00-19:00 Haurrendako puzgarriak eta jokoak Ibai kalean.
18:30 Haurrendako txokolatada.
19:00 Aralarmendi elkartearen eskutik sardinada.
19:30 Buruhandiak.
20:00-21:30 Chuchín Ibañezen eskutik musika plazan.
21:30 Zezensuzkoa.

ARBIZU

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 24 Ostirala
10:30 Dianak Jaiak txarangarekin.
11:00-13:00 Puzgarriak eta buruhandiak, plazan.
11:30 San Juanera igoera txarangarekin.
12:00 Meza nagusia San Juan ermitan.
12:30-14:30 Los viajeros de Irapuato mariatxi musika eta dantza taldearen emanaldia, plazan.
17:30-19:30 Kalejira Jaiak txarangarekin.
20:00 Aatea, plazan.
23:00 Euskabaret ikuskizuna, plazan.
00:30 Asgarth taldearen kontzertua, plazan.
02:00 Rodeo taldearen kontzertua, plazan.

EKAINAK 25 Larunbata
KINTOEN EGUNA
10:30 Herriko pilotarien esku pilota partidak.
11:00 Kintoek pixket eskien.
12:00-14:00 Puzgarriak.
12:00 Aldabideren aatea.
12:30-14:30 Eingo musika taldearekin poteo musikatua.
18:00-18:30 Eneritz Artetxe ipuin kontalaria.
19:00-20:00 *Altxor galduaren bila* Zirika zirkus Piraten ikuskizuna.
20:00 Aatea.
20:30-22:00 DJ Makala.
00:30-04:30 DJ Makala.

EKAINAK 27 Astelehena
GAZTEEN EGUNA
10:30 Dianak.
11:00-13:30 Puzgarriak.
12:30 Argi bideko aatea.
13:00 Poteoa argi gurdiyarekin.
14:30 Bertso bazkaria Julio Soto eta Eneko Lazkoz bertsolariekin.
18:00 Elektrokela elektrotxaranga.
20:00 Aatea.
20:30 Mozkor herri kirolak.
23:00 Kontzertuak: Rebel noise eta Kaos Urbano taldeak.
01:00 DJ Bull.

EKAINAK 28 Asteartea
JUBILATUEN EGUNA
10:30 Dianak.
11:30 Jubilatuen meza.
12:00 Jubilatu elkartearen aatea.
12:30 Jubilatuen luntza.
13:00-14:30 Puro Relajo taldearen kontzertua.
17:00 Mus txapelketa.
19:30 Herriko musikarien emanaldia.
20:00 Aatea.
00:00 Kontzertuak: Beietz eta Kaos Etiliko taldeak.

EKAINAK 29 Asteazkena
PRESO ETA IHESLARIEN EGUNA
10:30 Dianak.
11:30 *Etxera!* Aatea.
12:00-14:00 Puzgarriak.
12:30 Preso, iheslari eta deportatuen aldeko brindisa,

LIZARRAGA Asteburuan San Adrian festak ospatuko dituzte Lizarragan. Besteak beste, Urbasako San Adrian ermitara erromeria egin zuten, eta plazan bazkariak, afariak eta dantzaldiak izan ziren.

plazan.
13:30 Paella lehiaketaren hasiera.
15:00 Herri bazkaria, Alaia Martin eta Julio Soto bertsolariekin.
18:00-19:00 Txikirock taldearen emanaldia.
19:30 *Itxeko bidea gertu* manifa.
20:00 Aatea.
20:30-22:00 Tirri&Teri Djak.
00:00-01:30 Kontzertua: Muga Zero taldea.

DORRAO

SAN JUAN FESTAK

EKAINAK 24 Ostirala
9:00 Errosarioa San Juan ermitan.
20:00 Ogia, gazta eta ardoa.

EKAINAK 25 Larunbata
09:00 Meza San Juan ermita.
Ondoren, gosaria.
15:00 Bazkaria.

BAKAIKU

UDAKO SOLSTIZIOA

EKAINAK 24 Ostirala
Goizean eta arratsaldean
Puzgarriak.
17:30 Opil banaketa, udaletxean.
* Uztaileko festetako egitarauarako marrazkiak jasoko dira.

EKAINAK 25 Larunbata
18:00 Maiatza zutitzea, plazan.
Ondoren, pintxo pote.
19:30 Eztanda Txarangarekin kalejira.

OLAZTI

BATUEKO

EKAINAK 25 Larunbata
10:30 Kalejira Burundar txistulariekin.
Ondoren, Batuekora San Migel plazatik
11:00 Hamaiketakoa, Batuekon.
14:30 Kuadrillen bazkariak.
17:00 Dantzaldia La Cigarra txarangarekin.
19:00 Sardinada, Batuekon.
* Euria eginez gero, Memoria Historikoaren parkean.

ALTSASU

SAN JUAN EGUNA

EKAINAK 24 Ostirala
20:00 Zortzikoa eta auzatea, Foru plazan.
22:30 Haize Berriak Bandaren dantzaldia, Foru plazan.

SAN PEDRO

EKAINAK 29 Asteazkena
10:00 Udalbaltza Altsasuko txistulariekin udaletxetik San Pedroko zelaira abiatuko da.
10:45 Auzatea eta zortzikoa.
14:30 Bazkariak.
17:00 Udalbatzaren agurra zelaian barrena.
Ondoren, Puruen banaketa.
20:00-22:00 Dantzaldia Josu Anaiak taldearekin, Foru plazan.
24:00-02:30 Dantzaldia Josu Anaiak taldearekin, Foru plazan.

UNANU

SAN PEDRO FESTAK

EKAINAK 29 Asteazkena
SAN PEDRO EGUNA
18:00 Meza.
18:45 Beinduba.

UZTAILAK 1 Ostirala
9:00 Gosaria.
12:00 Txupinazoa eta trikitixa emanaldia.
12:15 Auzatea.
15:00 Herri bazkaria, elkartean.
17:30 Trikitixa.
20:00 Auzatea.
20:30-22:00 Kenbat taldearen emanaldia, plazan.
00:00-04:00 Kenbat taldearen emanaldia, plazan.

ARRUAZU

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala
15:00 Bakoitzak bere etxeko ataria garbitu.
19:00 Suziria, Herriko Etxean.
19:30 Meza San Pedro baselizan.
20:00 Meenduba San Pedron.
Baserritarrez janzteko deia egin dute.
20:30 2020an jaiotakoei herriko zapiaren banaketa.
22:00 Zezensuzkua.
22:30 Arbazuko Zortzikua, plazan.
22:45 Afaria, Itur Gain elkartean.
00:30-04:30 Dantzaldia eta jauziak Trikidantz taldearekin, plazan.

LIZARRAGABENGOA

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala
19:00 Festen hasiera.
Ondoren, puzgarriak eta bonba japoniarrak.
19:30 Auzatea trikitilariekin.
21:30 Afaria.
23:00-02:30 Musika.

URDIAIN

SAN PEDRO FESTAK

UZTAILAK 1 Ostirala
19:00 Koldo Zuazoren Burundako Hiztegiaren aurkezpena, Herriko etxean.

ARTXIBOA

ALTSASU Maitasuna adierazteko modu berezia dago Altsasun: San Juan abardiak. Lizarra maite denari, makala gustuko ez duenari. Udalak lehiaketa antolatu du; abardiari argazkia egin eta *iortia@altsasu.net*-era bidali.

Altsasuko San Pedro egunerako udalaren zenbait ohar

Ekainaren 29an sanpedrozelaira erromeria eginen dute Altsasun, eta ingurua babestea eskatu du udalak

ALTSASU

San Pedro eguna ospatuko dute altsasuarrek asteazkenean, ekainaren 29an, Sanpedrozelain eta udalak zenbait ohar helarazi ditu. Eguraldi txarrarekin erromeria Burunda pilotalekuan ospatuko dela jakinarazi du. 10:30etik aurrera San Pedroko zelaira iristeko Altsasuko errepidea moztuko da, eta, beraz, sarrera Urdiaindik eginen da. Mugikortasun mugatua dutenek zelaira autoz iritsi ahal izanen dira. Aparkalekuak Dantzaleku inguruan egonen dira, igerilekuetan eta futbol zelaian. Debekatua dago errepide bazterrean aparkatzea.

Festa "toki paregabean" ospatzen da, eta zabor ontziak eta kontainerrak egonen direnez, erabiltzeko eskatu du udalak. Txosnetan edalontzi birziklatuak erabiliko dituzte eta suak partekatzen saiatzeko aholkua ere helarazi du. Suziriak eta petardoak bezalako produktuak debekatuak egonen dira.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / *kultura@guaixe.eus*

OSTIRALA 24

ALTSASU Azken ostirala.
Euskal preso eta iheslariak etxera
Sarek deitutako elkarretaratzea.
19:30ean, udaletxearen parean.

IRURTZUN, LAKUNTZA, ARBIZU, ETXARRI ARANATZ
Azken ostirala.
'Euskal preso eta iheslariak etxera'
Sarek deitutako elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

LARUNBATA 25

LAKUNTZA Txirrindularitza lasterketak.
IV. Emakumeen txirrindularitza lasterketa eta Nafarroako jubenil eta kadete lasterketa. Aralar Txirrindularitza Taldeak antolatuta.
15:00ean, plazatik.

IGANDEA 26

ETXARRI ARANATZ Triku Trail mendi lasterketa.
Triku trail lasterketa. 21 km. Triku Trail taldeak antolatuta.
09:30ean, kanpinetik.

ALTSASU Altsasuko gaiteroen dianak.
Goizean, herritik zehar.

ARBIZU Manifestazioa.
Familiak haur eskolen duintasunaren alde.
19:00etan, plazan.

IRURTZUN Musika parkean.
Goxua'n salsa taldearen kontzertua.
20:00etan, Gernika parkean.

ALTSASU Elkarretaratzea
Euskal preso eta iheslariak etxera.
20:00etan, Foru plazan.

ASTELEHENA 27

ETXARRI ARANATZ Salto! Udaleku ibiltariari harrera
UEMAk antolatutako ekimena
09:00etan, plazan.

ALTSASU Elkarretaratzea.
Pentsio duinen alde.
12:00etan, udaletxearen parean.

ASTEAZKENA 29

OLAZTI Azoka solidarioa.
Eskolako seigarren mailako ikasleek antolatutako azoka. Jasotako dirua HELP-NA elkartarearendako izanen da.
16:00etatik 19:00etara, eskolako frontoian.

OSTIRALA 1

IRURTZUN Argazki erakusketa.
Begirada ezberdin bat gizarte bazterkeriaren aurkako erakusketa.
Ekainaren 26ra arte. Astelehenetik ostiralera 8:00etatik 22:00etara, larunbat eta igandetan 09:00etatik 22:00etara. Pikuxarren.

IRURTZUN Kontzertua.
Haize Txikiak Bandaren lehenengo kontzertua.
19:00etan, Gernika parkean.

URDIAIN Liburu aurkezpena.
Koldo Zuazoren Burundako Hiztegiaren aurkezpena.
19:00etan, Herriko Etxean.

IRURTZUN Musika parkean.
Haize Berriak Bandaren kontzertu-dantzaldia.
20:00etan, Gernika parkean.

ZORION AGURRAK

Hodei Zelaia
Zorionak Hodei! Dagoeneko 5 urte bete dituzu, segi orain arte bezain jator eta saltsero izaten. Bakaikuko familiaren partez muxu handi bat.

OROIGARRIA

Aitzarte Barandiaran Garcia

II.urteurrena

Ez adiorik, gurekin gelditzen zara
Beti izango zara gure bihotzetan

Leire eta zure seme Oihan

ESKELA

Kontxi Mendiluze Arregi

Zure falta asko nabarituko dugu

Bergara Tanco familia

OROIGARRIA

Aitzarte Barandiaran Garcia

II. urteurrena

(Ekainaren 21ean)

Inoiz ez diegu benetan agur esaten maite ditugun pertsonei. Bada zerbait gure baitan haiek berriro ikustea, sentitzea eta maitatzea espero duena, gure bihotzen sakonean jakinda ere, hori ez dela gertatuko.

Zure gurasoek, arrebak, koinatuak, ilobek eta gainerako ahaideek ez zaituzte ahazten

OROIGARRIA

Txomin Garciandia Goñi

I. urteurrena

Ixiltasunien izendu die zu lana ta biziye,
Txomin, ta izan zanangatik
eta yakusi dezunangatik,
ez duzugu sekula ahaztuko.

Insaustin etxekuek

IZARRA
HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk zeinetan norbait ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK
ALTSASU Santa Cruz, 6
ETXARRI ARANATZ Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

JAIOTZAK

• **Lur Gartziandia Urrestarazu,** ekainaren 16an Lakuntzan.

EZKONTZAK

• **Jon Zunzarren Etxarte eta Laguntzane Razkin Oskoz,** ekainaren 18an Irurtzunen.

HERIOTZAK

• **Maria Concepción Mendiluze Arregi,** ekainaren 16an Altsasun.

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA.
AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

IRAGARKI SAILKATUAK

LANA/NEGOZIOA

ERRENTAN EMAN

Bakaikuko Bakarreko-etxea elkartea festetan alokatu nahi da: Bakaikuko festetan, uztailaren 22tik 26ra, bi elkarteak alokatu nahi dira. Elkarte handia, 2500 eurotan, da eta elkarte txikia 2000 eurotan. Eskaintzak uztailaren 4ko 21:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Informazio gehiago *www.bakaiku.info* web orrian edo *bakarrekoetxea@gmail.com* emailera idatziz.

OHARRAK

Nerabeendako Campusa Arakilen: 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendua, aisialdi eskaintza agorrilaren 16tik 26rako astegunetan izango da, goizez. Izena eman nahi dutenek 634 584 226 edo 948 500 101 telefonoetara deitu dezake edo *arakilkultura@gmail.com* emailera idatzi dezakete. Erroldatutakoek 40 euro, ez erroldatutakoek 50 euro. Guraso bakar eta familia ugarientzako %20ko deskontua egongo da.

Olaztiko musika eskolan izen ematea zabalik. Olatzagutiko Udalak musika eskolan izena emateko epea zabalik du. 2022-2023 ikasturtean Olatzagutiko udal musika eskolan 5 urtetik gorako haurrek musika eta mugimendua ikasteko aukera izanen dute. Horretaz aparte, musika hizkuntza ikasteko aukera ere izanen da. Gainera, instrumentuak jotzen trebatzeko modua ere eskaintzen du Olatzagutiko udal musika eskolak: akordeoia, trikitrixa, bateria, pianoa, gitarra, baxua, gitarra elektrikoa, saxofoia, klarinetea, zeharkako txirula eta tronpeta-tronboia. Matrikula orria bete ondoren, hura *olazti@olazti.com* e-postara bidali edo udaletxean aurkeztu daiteke jendaurreko ordutegian, astegunetan 10:00etatik 14:00etara

Lakuntzako festetan 2021 urtean jaiotako haurren harreraren prestaketa: Lakuntzako Udalak festen hasieran joan den urtean jaiotako umeei harrerra egiten die zapi bana oparituz. Erroldatuta ez dagoen haurren batek zapia jaso nahi badu udaletxean izena eman beharko du, garilaren 22a arte.

Etxarri Aranazko musika eskolan izen ematea zabalik: ekainaren 30 arte udaletxean edo *www.etxarriaranatz.eus* web orrian.

IRACHE tanatorioak
"Betidanik"
948 19 70 70
@GrupoIrache
GrupoIrache
www.tanatoriosirache.es
Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

Ion Cerviño Pueyo, ezkerrean, Osasuna Magna Xotak eta Santa Colomak jokatutako partidan. XOTA

"Europako Txapelketarako hautatua izatea da egungo xedea"

ION CERVIÑO PUEYO OSASUNA MAGNA XOTAKO JOKALARIA

ARETO FUTBOLA Espainiako 19 urtez azpiko selekzioarekin nazioarteko torneoa jokatzen ari da Kroazian. Iraileko Europako Txapelketa bere helburu pertsonala da

Maider Betelu Ganboa IRURTZUN

Liga despedituta, Osasuna Magna Xota taldeko jokalariak oporretan daude, Ion Cerviño Pueyo atzelaria izan ezik. Irurtzundarra Kroazian dago, Espainiako 19 urtez azpiko selekzioarekin nazioarteko torneo batean parte hartzen. "Niretako oporrak bezala dira, selekzioan jokatzea ez baita egunerokoa" dio.

Lehen mailan debutatu duen jokalaririk gazteena izan zinen. 2019an izan zen, Burelaren kontra, 15 urte zenituela.

Urduri nengoen Anaitasunan jende asko zegoelako, baina partida polita izan zen, beti gogoratuko dudana. Sekulakoa izan zen, Lehen mailan ez baita egunero debutatzen. 15 urterekin eta etxeko taldean izatea, zer hobeto?

"KROAZIAKO TORNEOA IRABAZTEKO PRESIO HANDIA DUGU, JOAN ZEN URTEKOA IRABAZI GENUELAKO"

2021ean zure lehen kontratua sinatu zenuen, lau urterako kontratua Osasuna Magna Xotarekin. Oso pozik zeundela aitortu zenuen.

Bai, eta hala jarraitzen dut. Etxean jokatzeak eta egoteak ez du preziorik. Zorte hori dut eta oso pozik nago.

Irurtzungo talde bat Lehen mailan egotea eta bertan lau jokalari irurtzundarrek jokatzea handia da. Ez diogu duen meritua aitortzen.

Hala da, eta meritu oso handia du. Imanol Arregiren nahia izaten da harrobitik etxeko jendea aurrera ateratzea, eta beti lortzen du norbait.

Denboraldi gogorra izan da. Xotak ez du lesioekin zorterik izan, baina helburua lortu duzue, Lehen mailan jarraitzea.

Denboraldi luzea izan da, zaila. Lesioak, pandemia... gauza asko izan dira. Lehen mailan jokalari finkoa izan naizen lehen denboraldia izan da hau, eta alde horretatik polita izan da. Gure helburua bete dugu eta kontentu gaude alde horretatik. Orain, datorren denboraldiari begira, pilak kargatzen gaude.

Imanolek talde ia berria sortu behar izan zuen, eta datorren denboraldiari begira aurten lortutako esperientzia positiboa izango da. Eutsi diozue, gazteak zarete eta esperientzia lortzen ari zarete.

Bai, baina Imanoli gustatuko litzaioke taldea gorago egotea. Badaki oso gazteak garela eta egokitzapen tartea behar dugula, baina berak ez du etsitzen eta konfiantza du gugan.

Imanol areto futboleko entrenatzaile onenetarikoa da eta makina bat eskaintza izango ditu, baina Xotarekin konpromiso handia du. Datorren denboraldia taldea zuzentzen jarraituko du, egoera honetan taldea ezin duela utzi esan baitu.

Bai, eta oso pozik gaude Imanolek jarraituko duelako eta taldea handiago izateko laguntza emango digulako. Entrenatzaile oso ona da, niretako munduko hoberenetarikoa. Urduria da, baina badaki jokalari bakoitzari nola hitz egin behar dion, eta bakoitza nola estutu behar duen.

Denboraldi honetan pauso bat eman duzu aurrera.

Denboraldi ona egin dut, baina gehiago eman dezakedala ere badakit. Urtez urte hobetzen eta aurrera egiten ari naiz, eta datorren denboraldian konfiantza ematen badidate, badakit gauza gehiago egingo ditudala.

Espainiako 19 urtez azpiko selekzioak deituta zaude Kroazian, ekainaren 27ra arte.

Nazioarteko areto futbol torneo bat da, bi multzotan jokatzen ari dena. Asteartean Turkiaren kontra jokatu genuen multzoko lehen partida, asteazkenean Poloniaren kontra eta atzo, osteguna, Esloveniaren kontra. Ostiralean atseden jardunaldia izango dugu, larunbatean finalerdiak jokatuko dira eta igandean finala. Beste multzoan ere talde garrantzitsuak daude: Japonia, Kroazia, Ukraina...

"DENBORALDI ONA EGIN DUT, BAINA GEHIAGO EMAN DEZAKEDALA ERE BADAKIT"

Espainia torneoa irabazteko faboritoetako bat da.

Bai. Espainiako selekzioa izateagatik beti irabaztea exijitzen digute eta horretara etorri gara. Selekzio oso onak daude, badakigu torneo zaila izango dela, baina talde oso ona ekarri dugu Kroaziara eta gure nahia torneoa irabaztea da. Konfiantza badugu.

Entrenatzeko modua asko aldatzen al da Xotatik selekziora?

Jende ezberdina dago, beste entrenatzaile bat eta entrenatzeko beste modu bat. Ezberdina da, baina polita. Jokalari gehienak aurretik ezagutzen ditut. Espainiako 17 eta 18 urtez azpiko selekzioetan jokatu izan dut aurretik, jokalari asko ezagutu ditut eta gehienak hemen daude. Urtean oso gutxi ikusten dugu elkar, eta biltzea polita da.

Zuk selekzioan jokatzeak klubari ere prestigioa ematen dio.

Bai. Azkenean selekzioa estandarte bat bezalakoa da, eta zure jokalari batek jokatzea klubari garrantzia ematen dio. Imanolek beti esaten dit naizen bezala aritzeko, horrela ongi arituko naizela. Presio handia dugu, joan zen urtean torneo hau Espainiako selekzioak irabazi zuelako eta gutxienez berdina exijitzen digutelako. Gainera, ez dugu hala nola irabazi behar. Irabazi behar dugu, eta ongi.

Presio horri eustea ez da erraza izango. Argi dago burua ongi izatea sasoi fisikoa bezain garrantzitsua dela, edo gehiago.

Bai. Burua ongi baduzu, asko irabazita daukazu.

Kroaziatik bueltan merezitako oporrak hartuko dituzu.

Bai, aste pare bat emango ditut Cadizen. Ondoren, Espainiako selekzioak nazioarteko torneoa jokatuko du Brasilen, baina ez dakit deituko nauten. Kroaziakoa bukatuta esango dute. Selekzioa irailaren 7tik 13ra Jaenen jokatuko den Europako Txapelketa prestatzen ari da, eta selekzio onenen kontra jokatuz prestatu beharra dago, Brasilen kontra, esaterako. Europako Txapelketan parte hartzea nire helburu pertsonala da. Ikaragarria litzateke. Ea posiblea den.

Eukeni Goikoetxea, ezkerrean, Nafarroako Km Bertikalen txapeldunordea. UTZITAKOA

Sakandarren Camille, Canelle eta Ardibidepikua

MENDI LASTERKETAK Goikoetxea Nafarroako Bertikalen txapeldunordea izan zen; Razkin eta Gasanz, aurrean

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Asteburu mendizalea izan da Izabakoa. ADI-IKE taldeak antolatuta, hiru lasterketa jokatu dira guztira. Ostiralean I. Ardibidepikua Bertikala jokatu zen, Izabatik Larratza gainera (3,2 km, 800 m+), Nafarroako Km Bertikalen Txapelketa izan zena, 32 graduz gorako tenperaturarekin. Irabazlea Mikel Beunza izan zen (34:18), eta Eukeni Goikoetxea altsasuarra laugarren (36:21), eta bigarren nafarra. Hortaz, Dantzaleku Sakanakoa Nafarroako txapeldunordea dugu.

Larunbatean Canelle Trailaren txanda izan zen (13 km, 900 m +). 127 korrikalarik lortu zuten proba despeditzea. Eki Imaz izan zen irabazlea (1:14:15), Beñat Froemmingen aurretik (1:5:01). Lakuntza-Aralarren bigarren izatetik zetorren Jabi Gasanz altsasuarra hirugarren sartu zen (1:16:06).

Igandean 363 korrikalarik lortu zuten 16. Camille Extreme gogorra despeditzea (31,6 km, 2.044 m+). Xabier Zarranz (3:12:30) eta Oihana Kortazar (3:29:58) izan ziren txapeldun handiak. Amaia Razkin uharte arakildarra laugarren sailkatu zen (4:10:40).

Igandean, Triku Trail

Igandean, 9:30ean abiatuko da Triku Trail lasterketa Etxarri Aranazko kanpinetik. 21 km eta 1.400 metro desnibel positiboa duen mendi lasterketan izena emateko epea atzo despeditu zen. 250 korrikalari inguruk hartuko dute parte.

Gomez eta Urtasun, Nafarroako txapeldunak

TXIRRINDULARITZA Igandean Murtxanten jokatutako Nafarroako Erlojupeko Txapelketetan Iker Gomez eta Leire Urtasun kadeteen mailako txapeldunak izan ziren. Junior mailan, Mikel Unzilla Nafarroako txapeldunordea da eta Aimar Tadeo brontzea

Maider Betelu Ganboa SAKANA

Larunbatean juniorren Mendatako Sari Nagusia jokatu zen Gernikan, aldi berean Euskadiko Txapelketa zena. Eguneko ihesaldian Sakana Group-Aralarko Aimar Tadeo sartu zen, baina tropelak harrapatuta, Vizcay Hermanos taldeko Ibai Azanza gailendu zen. Sakana Groupeko Mikel Unzilla bigarren izan zen, txapeldunordea.

Hurrengo egunean, igandean, Nafarroako Erlojupeko Txapelketa erabaki zen Murtxanten. Kadeteen mailan Iker Gomez altsasuarra (Quesos Albeniz-Burunda) izan zen txapelduna, 8 kilometroak 11 minutu eta 14 segundotan osatu eta gero. Gomezek 9 segundo atera zizkion Iker Villarri (Ega Perfil) eta denbora bera hirugarren sailkatutako bere taldekide Ekain Imazi (11:23). Emakumezkoetan Lacturale Ermitagaña taldeko Leire Urtasun lakuntzarra izan zen Nafarroako txapelduna (14:15), bere taldekide Lucia Ortiz de Elgeari 24 segundo aterata (14:39).

Junior mailan, bezperan Gernikan bezala, Ibai Azanza izan zen 16,2 kilometroak azkarren osatu zituena (19:56). Mikel Unzilla (Sakana Group-Aralar) bigarren sailkatu zen (20:40) eta bere taldekide Aimar Tadeo hirugarren (21:45). 23 urtez azpikoetan eta eliteen mailan (21 km) Burundan trebatu zen Kortesko Hugo Aznar (Lizarte) izan zen azkarrena (28:49). Jon Erdozia etxarriarra bosgarren sailkatu zen (30:42).

Ezkerrean Mikel Unzilla, Nafarroako eta Euskadiko txapeldunordea. UTZITAKOA

Emakumeak bihar Lakuntzan

Bihar, larunbata, IV. Emakumeen Txirrindula Lasterketa jokatuko da Lakuntzan, Aralar Txirrindulari Taldeak antolatuta. 15:00etan abiatuko den proban, kadeteek 41,5 km eta juniorrek 60 km osatu beharko dituzte.

Leire Urtasun, eskuinean. UTZITAKOA

Bi txapela Sakanan

PALETA GOMA Nafarroako Foru Komunitateko Paleta Goma Torneoko finalak jokatu ziren Altsasun. Kadeteetan Aroa Arrosagarai eta Amaia Rio Boo izan ziren txapeldunak eta 22 urtez azpikoan Naroa Otxoa eta Olaia Eizagirre etxarriarrak. Eliteen mailan Irati Igoa etxarriarrak eta Paula Gorostiagak galdu egin zuten Espinalen eta Saezen kontra.

EMAKUME MASTER CUP

Pirinioetako bi irteeratara animatu du Larrañetak

MENDIA

Urtero bezala, udan Pirinioetara bi irteera antolatu ditu Etxarri Aranazko Larrañeta Mendi Taldeak, eta mendizaleak bertan aritzera animatu ditu.

Lehen irteeran, uztailaren 2an Lakorako zirkularra osatu nahi dute mendizaleek, eta Belaguako aterpean gaua pasatu eta gero, uztailaren 3an Belaguako Zirkularrari ekitea da helburua.

Bigarren irteera bi aste barru izanen da. Uztailaren 16an Linza inguruko La Mina ibilbidea egitea da asmoa, eta Linzako aterpean lo egin eta gero, uztailaren 17an La Pakiza de Linza izeneko zeharkaldia egingo dute.

Aipatu bi irteeratan izena ematea zabalik dago –686 662 241 (Pedro) eta 680 702 174 (Manolo)–. Lehen irteerarako ekainaren 28 baino lehen eman behar da izena, eta bigarren irteerarako uztailaren 12a baino lehen, aterpea eta autobusa lotu ahal izateko.

Memoriaren etxe bat

Jose Luis Erdozia Mauleonek 'Aranatz haraneko zeraren zerak' liburua aurkeztu du. Lanean Etxarri Aranatz, Lizarragabengoa, Arbizu eta Ergoiena biltzen duen haranaren historiaurretik XX. mende hasiera bitarteko historia jaso du.

Eneida Carreño Mundiñano eta Erkuden Ruiz Barroso
ETXARRI ARANATZ

Historia kontzeptu "handiegia" iruditzen zaio Jose Luis Erdozia Mauleon etxarriarrari eta, horregatik, asteazkenean aurkeztu zuen liburuaren izenburuan "zeraren zerak" erabiltzea egokiagoa dela uste du. Eta zer esan nahi du zeraren zerak horrek? Amonak esaten omen zien, "zeraren zerak, ezer esan be denetarik esaten duzu". Erdoziak azaldu duenez, oso zaila da Aranatzen edo Sakanan gertatutako guztiaren jarraipen "erabatekoa" egitea, eta jasotako horiek, beraz, "zeraren zerak" dira. Hortaz, *Aranatz haraneko zeraren zerak* liburuak ibarrean zehar historian zeharreko gertaerak, datak eta abarrak biltzen ditu.

Historiaurrean hasi eta XX. mendearen hasierarako Aranatzetik ibilbide historikoa egin du Erdoziak. "Liburua planteatu dut Aranazko memoriako etxe bat izango balitz bezala". Beraz, liburuak badu sarrera edo ezkaatza, sukaldea, eta atzekaldea. "Helburua gure historiako gure eskura dauden hainbat pasarteak ezagutzea da, eta hortik, ahal bada, ondorioak ateratzea. Zergatik daukagun daukaguna eta zergatik garen garen modukoak ere ezagutu".

Liburua zazpi ataletan banatuta dago. Ezkaatzan edo sarreran liburuaren helburuak agertzen dira, eta Aranatz non dagoen, "Sakanaren erdian dagoela ikusten dugula", Sakanan non dagoen, "Euskal Herriaren erdian", eta Aralar, Urbasa eta Andia mendizerrak hor daudela ere erakusten du; "nik uste horiek hirurek markatu gaituztela erabat gure aurrekoak eta gu ere bai". Sakana bidegurutzea izan dela aipatu du: "hemendik betidanik pasatu da jendea: erromatarren garaian Burdeos-Astorga galtzada pasatzen zen, autopista handia zen bere garaian, eta horrek nahi eta nahi ez markatu egin gaitu". Aranatz, Sakana, Nafarroa eta abarreko kontzeptuak edo izenak nondik etor daitezkeen ere azaldu du sarreran.



Jose Luis Erdozia Mauleon 'Aranatz haraneko zeraren zerak' liburuarekin.

Zazpi atal

Ezkaatza pasata, liburuaren "sukaldea" dator, eta bertan Aranatzen hainbat urtetan "egosi" diren gertaerak aipatzen dira. Zazpi ataletan banatu du historia. Lehendabizikoa historiaurrea da. Armando Llanos eta Jose Miguel Barandiaran eta zenbait arkeologo gehiagoren lanetara jo du, "ez bakarrik hemen Aranatzen zer topatu duten ikusteko, baizik eta inguruan ere. Urbasa, Olaztin edo Aralarren bizi ziren modua antzeko biziko ziren Aranatzen ere". Aztarnak ere kontuan izan dituela esan du Erdoziak.

Bigarren atala erromatarren garaikoa da, eta gero Etxarri sortu zeneko garaia: "XIV. mendeko baino lehenagoko dokumentuetan eta idatzietan Aranatz agertzen hasten da. Aranatz Ergoiena, Arbizu eta Etxarri bezala ulertuta". Bereizketa egin du Etxarri sortzen denean, XIV. mendean, "hor markatu egiten zen. Erregeak egin zuena izan zen hainbat herri desagertarazi Etxarrira bizitzera etortzeko". Hemeretzi herri omen ziren, "eta gaur egun bakarrik sei bizileku dauzkagu. Aldaketa handia".

XIV. mendearen inguruan Gaztela sartzen da ekuazioan, "Gaztelak Nafarroako Erreinua konkistatzen duenean aldaketa handia ekartzen du". Bitartean, Gipuzkoatik eraso asko egoten zirela esan du Erdoziek, "jauntxoen aldetik, ez zen herria". Eraso horiek desagertuz joan ziren, eta XVI, XVII eta XVIII mendeetan Aranatzen "gauza oso interesgarriak" gertatu zirela azaldu du idazleak: "Lizarra ordura arte Etxarriko alkatearen menpe zegoen, Arbizuk bere mugak zein izango ziren zehaztea lortzen du, eta prozesioengatik istilu handiak egon ziren, eta pentsa dezakezu zergatik kexatzen zen eliza garai horretan". Ekonomiaren aldetik basoek zuten garrantzia aipatu du Erdoziak. XIX. mendea beste kapitulu batean bildu du, eta azkenekoa XX. mendea da, "baina, esan bezala, estatu kolpea arte".

Aranatz elkartea ere aipatu du Erdoziak liburuan, "ez dakigu noiz sortu zen, baina esan daiteke entitate administratibo bezala XIII. mendean agertzen dela, eta XIX. mendean desagertzen dela, garaiko dokumentuetan aipatzen denez". Idazleak euskaratu idatzi horiek, "jendeak hobe ikusteko".

Historiako gertakizunen kontakizunen ondoren, beste atal bat jarri du Erdoziak; "eranskin bat", Onomastika historikoa. Bertan "izenak eta abar" jarri ditu, "gauza bitxia da XIII. mendetik XIX. mendera bitartean nola joan diren pertsonen izenak aldatzen". Denbora pasa bat jaso du ere liburuan, "esaldi nahiko luzeak markatu ditut eta hitza topatu behar da". Horrekin ateratzen den esaldia "atzera begiratuta zer atera beharko genuke ondorio bezala" lortu nahi du.

Dokumentuak

Aranazko historiaren errepasoa egiteko ezinbestekoak izan dira erreferentzia bibliografikoak; "bibliografia asko da". Paperezko liburuen eta dokumentuetan "bakarrik" 134 aipamen daude, eta horietatik guztietatik informazioa hartu du Erdoziak. Gaur egun ere erreferentzia elektronikoak "oso garrantzitsuak" direla esan du, eta horietan bat nabarmendu du: Documenta navarra bloga, Rafael Karasatorreren webgunean. Bertan dokumentu historiko asko jarri ditu jendearen eskura. Hala ere, ez da kontsultatu duen webgune bakarra, 24 baitaude.

Erdoziak aitortu duenez, XX. mendera arte "oso gustura" aritu da, "eta horren ondoren gertatu zena denok dakigu. Nahiko fresko dago eta erabaki dut idatzita dagoena bakarrik jartzea; testigantza oso zuzenen bat edo beste". Ahalik eta modu objektiboenean ematen saiatu da. Momentuz, ez du bigarren zati batean jarraitzea planteatzen.

ARANATZ HARANAREN HISTORIAURRETIK XX. MENDE HASIERARAKO ERREPASOA EGIN DU ERDOZIAK



Jesus Ondarra, Jose Ignazio Urriza, Lander Urritza eta Andoni Otamendi, maparekin. Pedro Miguel Kintana falta da. UTZITAKOA

"Bakaikuko toponimia betirako bilduta dago"

Jesus Ondarrak, Jose Ignazio Urrizak, Lander Urritzak, Andoni Otamendik eta Pedro Miguel Kintanak Bakaikuko dermioen mapa egin dute, Ondarraren 'Bakaikuko leku-izenez hausnarrean' liburuan oinarrituta. Mapa udaletxean eska daiteke

Maider Betelu Ganboa BAKAIKU

1 Bakaikuko mapa toponimikoa aurkeztu duzue, herriko izen guztiak jasotzen dituena.

Lander: Jesus Ondarrak idatzitako *Bakaikuko leku-izenez hausnarrean* (Pamiela) liburuan oinarritu gara mapa osatzeko.

Jesus: Liburuan agertzen ziren 289 izen nagusiez gain, bakaikuarrekin bildu eta gero beste zazpi izen berri sartu ditugu.

2 Bakaikuar adinduekin kontsultatu al duzue?

L.: Pedro Miguel Kintana artzaina izan zen, Jose Ignazio Urriza ehiztaria basoan asko ibiltzen da, Andoni Otamendi ere asko ibili da mendian... guztien artean atera dugu lana aurrera.

3 Nola banatu dituzue lanak?

L.: Andonik eta biok lan teknikoa egin dugu, mapa diseinatu, Jesusen lana oinarri. Gainontzekoak adinduekin bildu dira eta baso eta dermioetatik buelta dezente eman dituzte izen guztiak ongi kokatzeko.

4 Beraz, mapa %100 bakaikuarra dela esan daiteke.

L.: Altsasun inprimatu dugu, bestela guztiz bakaikuarra da.

5 Izen bereziren bat dago, arreta berezia sortu dizuena?

J.: Arreskileta. Ernestok aipatu zion Andoniri. Nire liburuan ez da agertzen. Garai batean kaleak lurrezkoak ziren. Aberats batzuk etxe eder bat egin zuten, eta galtzadara jaisteko harrizko eskilara batzuk egin zituzten. Hortik Arreskileta.

A.: Arreskiletaz gain, aitak esan zidan Liazazar ez zela liburuan agertzen. Jose Ignaziok Lizarrabide aipatu zuen; Bakaikutik Lizarragara bertatik joaten omen zen. Aurretik ez zeuden jasota.

6 Zein itxura du mapak?

A.: Izen asko daude, baina mapa irakurterraza izaten saiatu gara, diseinu erakargarria egiten.

L.: Andonik egin du azken mapa. Ordu asko sartu ditu basoan GPS-arekin dermio bakoitzeko mugak markatzen.

7 Mapa nahi duenak udaletxean eskatu behar du, ezta?

L.: Bai, ekainaren 27ra arte. Udalak etxe bakoitzari bana oparituko dio, baina aurretik eskatu behar da. Eta norbaitek mapa gehiago nahi baditu, eskaria lasai asko egin dezake. Jende asko ari da eskatzen.

8 Garai batean herritar guztiek leku izenak erabiltzen zituzten, basoan eta soroetan asko ibiltzen zirelako, baina gaur egun gutxi erabiltzen dira.

J.: Bai, eta saiatu beharko genuke leku izenak bizirik mantentzen. Hau da, erabiltzen. Jendeak badaki basoan ibiltzen, baina ez daki non dagoen. Eta leku horrek izena du. Jendea animatuko nuke izen horiek erabiltzera.

L.: Aurki mapa digitala banatuko da, telefonoan izan eta mendian gaudenean kontsultatzeko.Tresna ona izango da, jendeak ikas dezan.

9 Bakaikuko toponimia gordetzeko lan itzela egin duzue.

L.: Sekulako lana egin da. Bakaikuko leku izenak betirako gorde dira, eta ez dira inoiz galduko. Liburuarekin eta maparekin gure historiaren zati oso garrantzitsua jaso dugu, eta hori da politena.

J.: Bakaikuko toponimia bilduta dago. Bi tresna ditu, osagarriak direnak: liburua eta mapa. Toponimiaren informazio zehatza eta osoa nahi duenak, biak erabil ditzake.

A.: Gainera, mapa hau ez dago itxita. Norbaitek izen berriren baten berri badu, mapa eguneratuko dugu.

10 Mapa egitea lan luzea izan da?

A.: Bai. Aspaldi hasi ginen. Izenak aztertu, GPS-arekin mugak markatu... dermioetan buelta dezente eman behar izan dira.

L.: Pandemiak lana atzeratu zuen, eta kontuan hartu behar da aurretik Jesusek liburuarekin egindako lana egina zegoela.

11 Lana bukatutzat eman duzue ala tokiak karteltxoekin izendatzea aztertzen ari zarete?

J.: Andoniren osabak, Jesus Otamendik, Beheko Basoko zenbait tokitan izenak jarri zituen.

A.: Jose Ignazio ere izenak markatzen hasi zen bere kabuz. Dena den, ez dugu erabakirik hartu.